Led Silhouette

Jon López & Martxel Rodriguez

www.ledsilhouette.com

ledsilhouetteproduccion@gmail.com
+34 667388530 / +34 625218069

LYS





Lys zentzumenen erabileratik abiatzen den bizipen artistikoa da, naturako elementuak, geometria, mugimendua eta arte bisuala erabiltzen dituena ikuslegoaren esperientzia artearen nukleoan jarri asmoz. Argiaren inguruko ikerketa sakonean oinarritzen da, bai elementu eszeniko gisa bai eta itxaropenaren oinarrizko sinbolo gisa ere.

Bizitzen ari garen egoera honetan, argitasun eskasian, publikoa inoiz baino gehiago murgildu nahi dugu bidaia luminiko eta hipnotiko batean, paisai honen parte sentiaraziz, gogoeta sortarariz eta berau ahaldunduz. Lan honek artearen odisea bat ikertu eta elkarbanatzen du, talentu handiko hiru artista elkartzen direlarik indar, futurismo eta besarkada trinitate bat erakiaz.

"Ez ditugu bertze mundu batzuk nahi, ispilu bat nahi dugu"
Andrei Tarkovski

Proiektuaren babesleak eta ibilbidea:

- Eusko Jaurlaritzaren 2021eko Arte Eszenikoen Produkziorako dirulaguntzekin lagundua.
- Nafar Gobernuaren ArtemPro 2021 dirulaguntzekin lagundua.
- Estreinaldia Nafarroan, Zizur Nagusiko Kultur Etxean, 2021eko urriaren 29an.
- Estreinaldia EAEn, Hondarribiako Itsa-Etxea Auditoriumean, 2021eko urriaren 31ean.

EMANALDI OSOA
Lesakako Harriondo Kultur Etxean grabaturiko entsegu orokorra,
Pasahitza: lys












Argazkiak: Irantzu Pastor

FITXA ARTISTIKOA

KONTZEPTUA, ZUZENDARITZA ETA KOREOGRAFIA
Jon López eta Martxel Rodriguez

INTERPRETAZIOA
Katalin Arana
Laura Lliteras
Marina Fullana

MUSIKA KONPOSIZIOA
Paula Olaz

ARGI DISEINUA
Andoni Mendizabal

JANTZIEN DISEINUA
Iñaki Cobos

JANTZIEN EGITEA ETA ESZENOGRAFIA
Cobos Vestuario Escénico

PRODUKZIOA
Nagore Martínez

BANAKETA
Led Silhouette

PROIEKTUAREN BABESLEAK
Nafarroako Gobernua
Eusko Jaurlaritza
Lesakako Udala

LED SILHOUETTE

Led Silhouette Nafarroako Lesaka herrian egoitza duen dantza konpainia da, Martxel Rodriguez lesakarrak eta Jon Lopez madrildarrak sortu eta zuzendurikoa.

2016an etapa berria hasi zuten sortzaile gisa, dantza diziplina desberdinetan prestatutako artista gazte taldea zuzentzen, arte garaikidearen eraginpean. "La Veronal" edo "Kukai Dantza" bezalako konpainietan interprete moduan ere lanean jarraitzen dute. Mugimendu lengoai berriak eta hainbat kontzeptu ikertzen dituzte dantza garaikideari buruzko euren ikuspegi propioa eskaintzeko, lan egiteko plataforma bat sortuz eta bertan Led Silhouette eraikiz.

2016an euren lehen pieza "Moira" estreinatu zenetik, Valentziako “Festival 10 Sentidos” jaialdian estreinatua, egonaldi artistiko ezberdinak lortu dituzte ondorengo lekuetan:"Sortutakoak" Euskal Herrian, “Centro de Danza Canal-Residentes 2019" eta “Compañia Nacional de Danza”-ren egoitzan, azken biak Madrilen. Egonaldi artistiko hauetan sorturiko piezak Madrilgo Cuarta Pareded-en, Nafarroako DNA Festibalean eta Valentziako Centre del Carmen museoan erakutsi dituzte bertzeak bertze.

Produkzio propioak sortzeaz gain, konpainia desberdinetan sorkuntza eta ikerketa laborategiak egiten dituzte, hala nola, Valencia Dancing Forward, LAB 180º, Dantzaz Konpainia edota Comphania de Dança de Almada-n. Diziplina anitzeko kolektibo moduan artista bisual/plastiko, dokumentalista edota musikariekin elkarlanean aritzeko aukera izan dute proiektu desberdinetan, Luskas Ulmi, Nestor Lizalde, Irantzu Pastor, Paula Olaz, Javier Chozas edo Bertha Bermudez kasu.

Arteak jendartea eraldatzeko duen gaitasuna kontuan hartuz, haien proiektuek jendarte talde desberdinen parte hartzea eta ahalduntzea sustatzea dute helburu, komunitateen eta pertsonen arteko sare bat sortuz. Sorkuntza norbanakoaren baitan, sorkuntza berri bakoitza norberaren bizipenetan oinarrituz.

IBILBIDEA

https://www.ledsilhouette.com/tour



LYS // LED SILHOUETTE

Emanaldiaren inguruko jarduera paraleloak

Mediazioari dagokionez, formatu desberdineko jarduerak proposatzen ditugu, emanaldia eginen den espazio esznikoak aukera dezan bere publikoarekin hobekien konekta dezakeena. Aukera guztiak euskaraz, gazteleraz edo ingelesez egiteko aukera dago.

1.- Tailer TEORIKO-PRAKTIKOA. Mugimenduz osaturiko hitzaldi moduan, sorkuntza garaikiderako orokorrean eta LYSerako espezifikoki erabili den lan egiteko moduaren azalpena: material koreografikoa sortzeko metodologia, kontzeptuaren ikuspegia bertze arlo artistiko batzuetako obrekin, dramaturgia, musika konposizioa, argiteria... Orohar piezaren barrenak erakusteko jarduera bat da, sorkuntza eszenikoaren konplexutasunaren inguruko kontzientzia handitzeko helburua duena.

2.- Tailer PRAKTIKOA. Bertan gorputzari eta Led Silhouette-n garatzen ari garen material koreografikoaren sorkuntzarako metodologiari erreparatuko diogu. Publiko parte hartzaile eta aktiboagoa eskatzen duen jarduera da, gero ikuskizunean bizituko denaren protagonista bihurtzen baitu, lehen pertsonan.

3.- Emanaldi ondorengo SOLASALDIA. Bertan, galderen txanda eta ikusitakoari buruzko elkarrizketa sortzen dira. Jarduera honetan, publikoak lehenik pieza ikusten du, honen inguruko azalpenik edo aurreko esperientzirik gabe, eta gero, solasaldia gertatzen da. Bertze modu bat, interesgarria baita ere, hausnarketa bateratua sortzeko, kasu honetan publikoa ez dagoelako aurreko jarduerengatik baldintzatuta.

Aukera badago jarduerak euren aldetik konbinatzeko, 1 eta 3 edota 2 eta 3, hots, emanaldi aurretik tailer bat egitea, izan teoriko-praktikoa edo praktikoa, eta emanaldiaren ondotik solasaldiarekin bukatzea.